

txi
kitto!

2026ko ekaina



**ROBOTIKA ETA
BIDEOJOKO
UNIBERTSOA
LANTZEN**

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16



Argitaratzailea

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Naiara Esnaola

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia


Yanire sagredo

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Ama, badakizu zergatik
harakinek beti bikain
ateratzen dute
azterketetan?
-Ez, zergatik?
-Txuleta dutelako.

- Aita, zergatik botatzen didazu
guakamolea gainerik?
- Isildu zaitez Nacho!



- Aizul! Ba ahal zenekien nire
anaia lau urte zituenetik bisikletan
sebilela?
- Hara! Lekutan egongo da ba.

**BIZIKI KEZKATUTA ZEGOEN GIZON ARRARO BAT
MEDIKUARENERA JOAN ZEN ETA HAUXE ESAN
ZION:**

**—MEDIKU JAUNA, ARAZO HANDIA DAUKAT: NIRE
PUZKERREK EZ DUTE USAINIK.**

**—HORI EZINEZKOA DA. BOTA EZAZU UZKER BAT
ORAINTXE BERTAN!**

—PPPPPPRRRRRRRRRRRRRR!

**—LARRIA DA, BAI, ZURE EGOERA... EBAKUNTZA
BEHARKO DUZU.**

—IPURDIAN EDO?

—EZ, GIZONA, SUDURREAN.



ROBOTIKA ETA BIDEOJO



TESTUA: **IRATI MALAXETXEBARRIA** / BIDEOA: **YANIRE SAGREDO**

San Andres eskolako 4. mailako ikasleek robotika eta bideojokoen mundua landu dute azken hilabeteetan. Hasieran denek elkarrekin ikasi dute teoria, baina gero bi taldetan banatu dira: batzuek robotika landu dute eta besteek bideojokoen sorrera.

Robotika taldeak kartoizko robotak egin ditu, apaindu eta margotu ondoren. Gainera, gorputz geometrikoekin egindako erronkak erabili dituzte euren sorkuntzak osatzeko.

Bideojokoen taldeak "Pong" bezalako lehen jokoak ezagutu ditu eta Scratch aplikazioarekin euren bideojoko propioak sortu dituzte. Denek oso gustura aritu dira eta gauza asko ikasi dituzte jolasean eta sortzen.

BIDEOA
YOUTUBEN





Oxel Buendia

4. maila

Bideojokoen dekorazioa egitea asko gustatu zait, gauzak gure eskuekin sortzea oso dibertigarria delako eta asko ikasi dudalako.

Nora Aguirrebeña

4. maila

Gauza asko gustatu zaizkit, baina robotak diseinatzea eta egitea izan da nire gogokoena, sormen handia behar delako.



Younes Aiche

4. maila

Roboten mundua ezagutzea interesgarria izan da, makinek nola funtzionatzen duten ikastea oso harrigarria iruditu zait.

Olaia Fernandez

4. maila

Scratch aplikazioarekin bideojokoak sortzea oso dibertigarria izan da, eta gure joko propioa egitea asko gustatu zait.



ITURBURU

Ikasturteko azkeneko txanpa honetan bostgarren mailako ikasleak Amazabalegi baserrira bisita egin dute, gure lehen sektoreko nekazarien lana bertatik bertara ezagutzeko helburuarekin. Ander Urkiak primerako azalpenak eman dizkie eta gauza pila bat ikasi dituzte.



URKIZU

3. mailako ikasleek Eibar futbol taldeak antolatzen duen "Euskararen Baloian" hartu dute parte aurten ere. Aurkeztutako bideokliparekin, konpartitutako lehen saria lortu dute Arrateko Andra Mari ikastetxekoekin batera. Hori dela eta, gure ikastetxeak atezainak sinatutako eskularrua jaso zuen gelarako eta, horrez gain, ikasle bakoitzak larruzko Euskararen Baloi bana eskuratu zuen. Lehen taldeko jokalariek ezagutu zituzten eta haiekin argazkia atera zuten. Egun borobila!



AMAÑA



Ekainaren 5ean kurtso bukaerako jaialdia egin genuen Unibertsitate Laboralean. Hainbat dantza eta ikuskizunekin gozatu genuen egunaz, ikasle, irakasle eta familiak elkartuta. 6. mailako ikasleak agurtu genituen eta haur hezkuntzako ikasleek egindako opari bat jaso zuten. Uda ona pasa guztiok!

ARRATEKO ANDRA MARI

Hainbat irteera egin ditugu: Eureka zientzia museora, Anoetara, Getariako lonjara, Oriora, Coliseoko antzerki jardunaldietara, Tinkoko filma ikustera... Getariako lonjako enkante saioan parte hartzea asko gustatu zitzaien. Bertan, arraindegi, supermerkatu zein jatetxeek, arraina nola erosten duten bizi izan zuten. Gozatu udara eta laister arte!



LA SALLE



Azken boladan, hainbat irteera eta esperientzia berri egin ditugu: LH 1. mailakoak Basondon egon dira eta 3. mailakoak Guggenheim museoan. Oporrak oso gertu daude eta denok ikasturte bukaerako jaialdia prestatzen ari gara orain. Ondo bukatu eta opor zoragarriak pasa itzazue denok!!!

SAN ANDRES

2. zikloko ikasleak Deban izan ginen surf egiten ikasten. Hilaren 2an 3. mailakoak joan ginen, eta 5ean, 4. mailakoen txanda izan zen. Oraindik ura fresko xamar dagoen arren, pilo bat disfrutatu genuen surfa egiten ikasten. Gero, bertan bazkaldu eta etxera bueltatu ginen. Ederto pasa genuen eguna olatuen gainean!



ALDATZE



Aldatzeko LH 3 eta 4. mailetako ikasleak Urbanan egon gara. Asko dibertitu gara eta Pagadi Sorgindua bezalako leku zoragarriak ezagutu ditugu. Ikasturtearen azken txanparako pilak kargatuta!



ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*

Ezin izango zara geldirik egon! Eguraldi onarekin batera, mugitzeko eta gauza berriak probatzeko gogoia izango duzu. Kontuz, ordea: ur botila gertu edukitzea komeni da.



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Hilabete goxoa izango da zuretzat. Izozki batez gozatu, itzalpean atsedean hartu eta uda poliki-poliki iristen dela sentituko duzu.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Lagunekin planak egiteko garaia izango da. Egun batean parkean, beste batean hondartzan edo mendian... Aspertzea zaila izango zaizu.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Urarekin lotutako planak gustatuko zaizkizu bereziki. Igerilekua, hondartza edo ur-pistolekin jolastea... Freskatzeko modu ugari aurkituko dituzu.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*


Eguzkia zure aliatua izango da hil honetan. Zure umore onak ingurukoak ere alaituko ditu, eta barre asko egingo duzu.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Abentura handi bat antolatu beharrean, momentu txikiez gozatuko duzu. Paseo bat, liburu bat edo lagun batekin hitz egitea nahikoa izango da.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Planak aukeratzea kostatuko zaizu, denak interesgarriak irudituko zaizkizulako. Zorionez, aukeratzeko duzun edozein plan ondo aterako da.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Zerbait berria ikasteko aukera izango duzu. Agian joko bat, kirol bat edo orain arte probatu ez duzun zaletasun bat.



SAGITARIO

*azaroak 21
abendua 20*


Uda usaintzen hasi zara dagoeneko. Txangoak, bidaiak edo egun osoko abenturak izango dira zure gogokoenak.



CAPRICORNUS

*irailak 21
urriak 20*

Beroak gauzak lasaiago hartzera gonbidatuko zaitu. Ez dago beti korrika ibili beharrik: atsedean hartzea ere plan bikaina izan daiteke.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Idea originalak izango dituzu lagunekin egiteko. Agian joko berri bat asmatuko duzu edo arratsalde dibertigarri bat antolatuko duzu.



PISCIS

*otsailak 21
martxoak 20*

Zure irudimenak hegan egingo du. Hodeiei begira istorioak asmatuko dituzu edo uda honetarako amets politikak egingo dituzu.



TESTUA: EKHI BELAR

Urkizu eskolan elkartu ditugu Asterio eta Elaia Alonso aitxitxa-iloba. Hamarkada askoko aldea dago euren artean, Asteriok 92 urte ditu eta Elaia 11, baina demaseko maitasunak batzen ditu biak. Aitxitxa Villaseco de los Reyesen (Salamanca) jaio zen eta Elaia Eibarren. Ikusi dezagun zertan datozen bat eta zertan ez.

Zer egiten duzue asteburuetan?

ASTERIO: Paseatu. Tabernetan ibiltzea ez zait gustatzen.
ELAIA: Lagunekin geratzen naiz.

Zer ikusten duzue telebistan?

ASTERIO: Kaxen lehiaketa hau... '¡Allá tú!'.
ELAIA: Pelikulak ikustea gustatzen zait, akziokoak eta abenturakoak batez ere.

Zein da zuen pelikula gustukoena?

ASTERIO: Ez dut pelikula asko ikusi, ez dudalako denborarik izan.
ELAIA: 'Alerta gorria' da gehien gustatzen zaidana.

Zer musika gustatzen zaizue?

ASTERIO: Flamenko musika gustatzen zait batez ere. Oihuka irteten den jende hori ez zait gustatzen.
ELAIA: Ingeleseko pop musika entzuten dut batez ere.

Zein da zuen janari gustukoena?

ASTERIO: 25 urteak bete arte, garbantzuak besterik ez nituen bazkaltzen, eta afaltzeko dilistak edo babak. Sasoi hartan ez zegoen besterik. Beraz, garbantzuak gustatzen zaizkit gehien, ez nau nekatzen.
ELAIA: Makarroiak.

Jolas bat?

ASTERIO: Txikia nintzenean ez zegoen pelotarik ere. Alpargatekin pilotak

egiten genituen eta kanpandorrean zegoen paretaren aurka esku-pilotan ibiltzen ginen. 'Txirunban' ere egiten genuen.
ELAIA: Harrapaketetara jolastea gustatzen zait gehien.

Jairik gustukoena?

ASTERIO: Nire herriko jai nagusiak, irailaren 8an ospatzen direnak.
ELAIA: Sanjuanak.

Asterio, nolakoa da Elaia? Eta Elaia, nolakoa da aitxitxa?

ASTERIO: Aitxitxak zer esango du ba! Beno, anaia bera baino langileagoa da (barreak). Elaia zintzoa da.
ELAIA: Aitxitxa oso jatorra da eta dibertigarria batzuetan. Asko du irakasteko.

MELOKOTOI ETA YOGUR IZOZKIAK

OSAGAIK:

- 250 g fruta-pulpa (kasu honetan, melokotoia erabili dugu)
- 300 g jogurt greko natural
- 50 g azukrez eta 100 ml urez egindako almibarra




NOLA EGIN:


1. Ezer baino lehen almibarra prestatuko dugu.
2. Ura azukrearekin batera irakiten jarriko dugu, disolbatu eta gorde arte.
3. Hautatutako fruta ondo garbitu eta likidotu behar dugu elikagai-prozesadorearekin edo likuadorearekin, mami fin bat geratu arte.
4. Mamia jogurtarekin eta almibarrarekin nahastu, eta poloetarako moldeak beteko ditugu. Molderik ez badugu, erabili eta botatzeko edalontziak ere erabil ditzakegu.
5. Zotzak jarri eta izozkailura gutxienez 3 ordu eraman, nahiz eta onena egun batetik bestera izan.

ZAZPI EZBERDINTASUNAK

Bilatu 7 desberdintasunak:



LABIRINTOA



AURKITU HITZ GUZTIAK

EUROPA KO
HERRIALDEAK

S	F	R	T	A	G	M	N	S	O	G	K	A	E	I
F	R	A	N	T	Z	I	A	S	U	L	N	T	D	N
M	E	S	A	H	B	I	Z	A	X	E	U	K	T	G
R	L	E	O	I	S	A	N	R	B	O	B	I	N	A
P	R	U	G	K	U	S	E	I	D	X	O	I	R	L
L	G	S	P	T	B	O	P	S	I	E	Z	M	A	A
X	D	R	E	S	Z	A	N	P	T	S	O	K	D	T
T	X	M	E	E	L	J	O	N	A	S	A	R	A	E
B	I	H	S	Z	T	A	M	I	L	A	I	D	E	R
R	A	N	T	I	I	A	N	E	I	S	A	R	N	R
T	O	U	O	X	Z	A	H	F	A	D	E	B	F	A
A	D	G	N	I	B	J	O	L	K	O	P	R	X	Z
B	J	O	I	L	M	T	O	N	T	N	P	U	T	S
Z	U	N	A	K	P	O	D	E	T	T	R	A	K	N
M	O	Z	A	N	B	A	A	U	S	T	R	I	A	H

FRANTZIA

ALBANIA

GREZIA

SVEDIA


INGALATERRA

ITALIA

AUSTRIA

ESTONIA

IDATZI KOLOREAK



Egita RAUA

Gora San Juanak!

EKAINAK 20, LARUNBATA

09:30-20:30 Errebal

Jolasen simulazio tailerra (modelismoa, eszenografia eta mahai-jokoak).

EKAINAK 21, IGANDEA

19:30 Untzaga

'Triplette' zirku-ikuskizuna, Labu&Cris Clown.

EKAINAK 22, ASTELEHENA

17:00-20:00 Untzaga

Umeentzako puzgarriak.

Egunean zehar, barraken prezioa 1,30 eurokoa izango da.

17:00-20:00 Untzaga

'Flybblek drone soccer'.

19:30 Untzaga

'Ekilikua' ikuskizuna Tutik Clowns-en eskutik (Gari, Montxo eta Joselontxo).

EKAINAK 23, ASTEARTEA

12:00 Untzaga

Kuadrillak bildu eta Ustekabe fanfarrearekin kalejira Urkizuraino.

13:00 Estaziño kalea

Lizarrako dultzaineroei ongietorria eta kalejira Untzagaraino.

13:30 udaletxetik

Pregoia eta txupinazoa.

17:00-20:00 Untzaga

Klarion tailerra: Sanjuanetako munduko kartel handiena.

19:00 Urkizu

Erraldoi eta buruhandien kalejira.

20:00 Bizikleta Plaza

Txokolatada.

22:00 Untzaga

Nagusien danborrada.

EKAINAK 24, ASTEAZKENA

Umeen eguna txosnagunean:

- 11:30 Oean, Kamiseta banaketa eta tailerrak.
- 14:00 Etan, umeen bazkaria.
- 16:00 Etan, Potx pailazoa.
- Eta hamaiketakoa, jolasak, musika...

11:30-14:30 eta 17:30-19:30

Untzagan,

'Arrels' jolas-parkea.

18:00 Errebal

VI. San Juan City Secrets makro-ginkana.

19:00 Zuloagastarren parkea

'DJ Xaibor' + txokolatada.

19:00 Urkizu

Umeen danborrada.

20:30 Untzaga

Pregoia.

00:00 Untzaga

Suzko erroberak.

EKAINAK 25, ASTEAZKENA

11:30-14:30 Untzaga

'Egurrezko eta tradiziozko jolasak' parkea.

17:30-20:30 Bizikleta Plaza

Umeentzako puzgarriak.

18:15 Urkizutik

Erraldoi eta buruhandien kalejira.

19:00 Zuloagastarren parkea

'Alonso mezularia eta galdutako gutuna' kale antzerkia.

19:30 Untzaga

Euskal Jaialdia (herri-kirolak).

20:00 Zuloagastarren parkea

Txokolatada.

23:00 suzko erroberak.

6 urte

Aran Txan Txan

Marra batek herria bitan banatzen du: alde batean bizi dira arantxantxandarrak, eta bestean guligulitarrak. Debekatuta dute beste aldera pasatzea, bestela...Kanta famatua oinarri harturik abentura, bizikidetza eta kantua batzen dituen istorio ederra.



8 urte

Zakur ustel hondartzara doa

Zakur Ustelek ez daki zen den oporretara joatea eta ez du itsasorik ezagutzen. Horregatik, Ahantzien kanpamentuan leku bat eskaini diotenean, ez du birritan pentsatu: Katuzapal lagunarekin abiatu da bertarantz. Badirudi opo ahaztezinak izango direla...



10 urte

Mati nork itzali ditu argiak?

Abentura berri hau Matiren istripu batekin hasiko da. Eskolako rokodromoan eskalatzen ari dela, behera erori eta hanka hautsi du. Medikuak, igeltsadura jarri ondoren, agindu dio lehen egunetan etxean lasai egoteko. Kalera irten ezinda, Mati eta Lau katua asper-asper eginda daude. Baina asperdura ez da luzerako izango.



■ BITXIKERIAK

Paper
karratu zati
bat ezin da **zazpi**
aldiz baino gehiago
erditik tolestu

Gizakiak
bilioi bat usain
desberdin baino
gehiago **bereiz**
ditzake.

Gizakiok
18 kilo azal
inguru **galtzen** ditugu
gure bizitza osoan.
Hilero
aldatzen da.

HIRU LAGUNEN ABENTURA

EGILEAK: AMAÑAKO 4. MAILAKO IKASLEAK

Duela 15.000 urte inguru, izaki bizidunak, elkarrekin bizi ziren herri txiki batean. Ufo mamua, Manolito eta Ani Lani bakoitza bere bizitokian bizi zen.

Ufo mamua basoko etxe abandonatu batean bizi zen, oso bakarrik sentitzen zen eta bere aita desagertu zen. Manolitok 12 urte zituen eta Etxarriko kobazulo baten bizi zen. Manolito magikoa eta dibertigarria zen baina jendearekin egotea ez zitzaion gustatzen eta haserretzen zenean, animalia handia bihurtzen zen.

Ani Lanik 2.000 urte zituen eta hodeietan bizi zen eta jendearen sekretuak asmatzea gustatzen zitzaion.

Goiz batean, Ufo mamua basoan zebilen bere aitaren bila. Manolito kobazulotik korrika irten zen animaliak kobazulora sartu zitzaizkiolako. Korrika-korrika zebilela Manolito eta Ufo Mamua txokatu ziren, Ani Lanik txokea ikusi zuen eta hodeietatik jauzi zen beraien gainera:

- Barkatu lagunok hodeietatik begira negoela jauzi naiz - esan zuen Ani Lanik.
- Ez da ezer gertatzen, nire atzetik animaliak zetozeala ni eta mamua txokatu gara -esan zuen Manolitok.
- Ufo naiz eta triste nago nire aita

desagertu delako, lagundu ahal didazue mesedez?


Eta horrela lagunak izan ziren eta Ufo Mamuari lagundu zioten bere aita bilatzen.

Abentura asko bizi zituzten, krokodilo gosetiak pasatu zituzten, dragoiaren sugarretatik ihes egin zuten, hodeietan jolasten ibili ziren... Bat-batean arrano baten kabian aurkitu zuten Ufo mamuaren aita. Laguntza eskatzen zebilen eta hiru lagunak lagundu zioten jeisten. Ufo mamuaren aitak gertatu zena kontatu zien:

- Fruituak biltzen nenbilela arrano batek harrapatu nau eta kabira eraman nau- esan zuen Ufo Mamuaren aitak.

Ufo mamuak bere aitari besarkada handi bat eman zion eta Ufo mamua oso pozik jarri zen eta ospatzeko festa bat egin zuten Manolitoen kobazuloan, animalia guztiekin batera.

TARARI TARARA
IPUINA AMAITU
DA, EGIA ALA
GEZURRA BEGI
BIEN ARTEAN
SUDURRA!



Zu bai margolari

Zu bai

Lotu zenbakiak eta
ondoren koloreztatu irudia



margolari

Zu bai m

argolari

Zu

Zu bai margolari

margolari

Zu bai

bai margolari